

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENAKO UDALA

OHZren hobarien eskaera

Datorren 2026ko abuztuaren 31 arte, hau barne, interesdunek (HIRI) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren HOBARIAK eskatu ahalko dituzte. Aipatu hobariak kuota osoaren ehuneko 20tik ehuneko 95era arte izan daitezke, errenta eta familia unitateko kide kopuruaren arabera.

Aipatutako hobariak etxebizitza bezala bakarrik erabiltzen diren ondasun higiezinatarako izango dira, baldin eta etxebizitza subjektu pasiboaren ohizko bizilekua bada, bertan bizi den familia unitateko kideetako inork ez badu etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezinik.

Kuota osoaren hobariaren ehunekoa familia-unitateko kide-kopuruaren eta familia-unitateko kideen multzoaren errentaren arabera izango da, koadro honi jarraiki:

FAMILIA-UNITATEKO KIDE-KOPURUA	21.000 EUROTİK BEHERAKO ERRENTAK	21.001 ETA 29.000 EURO BITARTEKOAK	29.001 ETA 38.000 EURO BITARTEKOAK	38.001 ETA 42.000 EURO BITARTEKOAK
1	%75	%20	%0	%0
2	%90	%75	%20	%0
3	%95	%80	%60	%30
4	%95	%95	%80	%75
5	%95	%95	%90	%90

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Eskaera orria (udal bulegoetan eskuragarri dago).
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitorpena (PFEZ) edo azken urtean izandako sarreraren egiaztagiria zinpeko deklarazioarekin.
- Familia erroldaren ziurtagiria.

Araian, 2026ko abuztuaren 6an

Alkatea

TXELO AUZMENDI JIMÉNEZ